Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

BANDOA

AUTOKARABANAK ETA ETXEBIZITZA IBILGAILUAK APARKATZEKO ETA HORIETAN GAUA PASATZEKO BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA

Lesakako Udalak, 2025eko abenduaren 18an egin ohiko osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak aparkatzeko eta horietan gaua pasatzeko baldintzak arautzen dituen udal ordenantza fiskalaren aldaketa.

Onetsitako ordenantza jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek eta interes legitimoa dutenek espedientea azter dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak, kexak edo oharrak aurkez ditzaten; hori guztia, bat etorriz Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluarekin eta harekin bat datozen gainerako xedapen aplikagarriekin.

Jendaurreko epean inork ez badu erreklamaziorik, kexarik edo oharrik aurkezten, ordenantza behin betiko onetsirik gelditukо da, eta testua osorik emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean, indarra har dezan.

Lesakan, 2025eko abenduaren 19an.

Alkatea, Ladis Satrustegui Alzugaray.

44561288F
LADIS
SATRUSTEG
UI (R:
P3115200B)